



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, SOLLANOKO EUT-AREN SISTEMA ELEKTRIKOA ETA KONTROL-SISTEMA ERABERRITZEKO OBRA KONTRATATZEKO, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA UR-BALIABIDEAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN (INGURUMENAREN ARLOKO ENFORCEMENT DIGITALA)» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN. (ESPEDIENTE-ZK.: 3200)

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☐ Ohikoa, ☒ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☐ Irekia ☒ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Javier Salvador Montaos
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: SOLLANOKO EUT-AREN SISTEMA ELEKTRIKOA ETA KONTROL-SISTEMA ERABERRITZEKO OBRA

2.- Zer beharri erantzun behar zaizen: Jarduketa hauen xede diren instalazioak instalazio zaharrak dira, hondatuta daude eta digitalizazio-maila baxua edo nulua dute gailu elektrikoei, instrumentazioari, kontrolagailu logiko programagarriari (PLC) eta komunikazioen hardwareari dagokienez, bai eta bistaratze- eta eragiketa-sistema lokalei (OP) eta urrunekoei (SCADA) dagokienez ere. Proiektu honen xede diren instalazioek honako gabezia hauek dauzkate: ☐ Behe-tentsioko koadro elektrikoak erabat berritu behar dira, hartara, instalazioen fidagarritasuna eta ekipo eta pertsonen segurtasuna bermatzeko. ☐ Dauden gailu elektrikoek ez dute teleaginte baterako behar den funtzionaltasuna eta ez datoz bat BBUPEk eguneratutako estandararekin. ☐ Zentralizatu gabeko indar- eta kontrol-koadro ugari daude, jarduketa desberdinetatik sortuak, eta guztia koadro elektriko bakar batean eta kontrol-sistema batean zentralizatu nahi da. Instalazioek ez dute aginte eta bistaratze lokal eta urrutikorako (Hornidura Sareen Kontrol Zentraleko Postutik, Betelurin) behar den kontrol- eta komunikazio-hardwarerik eta -softwarerik.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzearen justifikazioa: Kontratuak ezaugarri bereziak ditu, eta haren xedearen barruan sartzen diren askotariko prestazioak modu independentean egiteak zaildu egingo luke behar bezala gauzatzea ikuspegi teknikitik, kokaleku ezberdinetako seinaleak jaso eta sistema bakar gisa elkarri lotzen saiatzean.

4.- CPV:

45310000-3 Instalazio elektrikoko lanak.



B.- KONTRATUAREN XEDEA

48921000-0 Kontrola automatizatzeko sistema.

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ

6.- Izaera juridikoa: ☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

**ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA BI MILA
LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA
HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMO (862.095,70 €),
BEZ-IK GABE**

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 862.095,70 euro

Loteak: ☐ BAI ☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:
16932 62302

- 2025. urtea: 258.628,71 €
- 2026. urtea: 603.466,99 €

5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☒ BAI ☐ EZ

Funts mota: Europar Batasunaren Next GenerationEU Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kontura finantzatua. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautzen da.

% 61,62ko kofinantzaketa: (BEZari dagokiona izan ezik)

7.- Ordaintzeko modua: Hileroko ziurtagirien bidezkoa. Unitate osoak edo ehunekoak ziurtatuko dira, lanen aurrerapen-mailari zer dagokion, honako ohar hauekin:

«Ekipoak» biltzeagatik ordainduko da, Legeak ezarritako mugen arabera, obran jaso ostean, eta beti, abalen kontra.

Obraren aurrerapen-mailaren arabera, gehienez egindakoaren % 70 ordainduko da. Gainerako % 30a honela ordainduko da:

- Instalazioak legeztatzea eta probak amaitzea: % 10
- Behin betiko dokumentazioa ematea: % 10.
- Behin betiko harrera-akta sinatzea: % 10.

Kontratatutako eskaintako prezioaren % 20 atxikiko da funtzionamendua egiaztatzeko softwarea edo datuen eta seinaleen karga behar duten partidetan. Partida horiek kontrol- eta automatismo-probak gaitutako ondoren ordainduko dira.

**C.- KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratistari hilero ziurtagiri bat baino gehiago egiteko eskatu ahal izango zaio, baldin eta zati batez edo guztiz egindako obrak Europako funtsen pakete desberdinei badagozkie (Next Generation).

8.- Konturako ordainketak: Ez.

D.- KONTRATUAREN EPEA**1.- Iraupen osoa: HAMABI (12) HILABETE**

2.- Epe partzialak.

☒ BAI ☐ EZ

Mugarri partzialak:

Kontratistak kontratua gauzatzeko finkatutako epearen barruan bete behar du kontratua, eta hurrenez hurren gauzatzeko ezarritako mugarri partzialak ere bete egin behar ditu. Kontratistak epe hori edo mugarri partzialak bete ezean, **zigorren atalean adierazitako zigorra ezarriko da**. Berandutzeagatiko zigorra ehuneko bostera iristen bada (% 5), BBUP kontratua deuseztatzen hasi ahal izango da.

Zigorren batura ezin izango da izan kontratuaren aurrekontuaren % 10 baino handiagoa.

Mugarri partzial hauek ezartzen dira, guztiak ere lanak hasten direnetik zenbatzen hasita, obrak kontrolatzeko eta zigorrak aplikatzeko:

- Kalitate-programa entregatzea 1 hilabete
- TETRA estaldura-azterketa, hondakinak kudeatzeko plana, segurtasun- eta osasun-plana 2 hilabete
- Oinarrizko ingeniariatza 3 hilabete
- Lan-frenteak onartzea eta eskaerak abiaraztea 4,5 hilabete
- Xehetasun-ingeniariatza eta SCADA garapenak entregatzea: A10 - Tratamendutegien digitalizazioa (T10.1 Sollanoko EUTa) 7,5 hilabete
- Instalazioa martxan jartzea: A10 - Tratamendutegien digitalizazioa (T10.1 Sollanoko EUTa).....11 hilabete
- Azken dokumentuak entregatzea eta instalazioak legeztatzea 12 hilabete

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: BI (2) URTE**5.- Kontratua exekutatzeko tokia: SOLLANOKO EUT-A:**

D.- KONTRATUAREN EPEA**6.- Lanak zatika jaso daitezke** ☐ BAI ☒ EZ.**E.- BERMEAK**☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:**F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA**

Ez da aplikagarria.

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Ez da aplikagarria

BALIABIDEEN ADSKRIPZIOAobren burua

- Unibertsitate-prestakuntza teknikoa (ingeniaritza edo antzekoa).
- Hiru urteko esperientzia kontratu honen xedearen izaera bereko proiektuen eta obren zuzendaritzan (obrak ongi egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira).
- Prebentzioa. Ezinbestekoa da laneko arriskuen prebentzioari buruzko oinarritzko prestakuntza izatea eta langileen prebentzio-baliabideetako bat izateko gaituta egotea.
- Arrisku elektrikoarekin lotutako 614/2001 Errege Dekretua. Kualifikatuta egon behar du. Lizitatzailaren aldetik behe-tentsioko edozein lan egiteko gaituta egon behar du, baita tentsioko lanetarako ere. Ikus beheko laukia.

CUADRO 1
CUADRO RESUMEN DE LA FORMACIÓN/CAPACITACIÓN MÍNIMA
DE LOS TRABAJADORES

	Trabajos sin tensión		Trabajos en tensión		Maniobras, mediciones, ensayos y verificaciones		Trabajos en proximidad	
	Supresión y reposición de la tensión	Ejecución de trabajos sin tensión	Realización	Reponer fusibles	Mediciones, ensayos y verificaciones	Maniobras locales	Preparación	Realización
BAJA TENSION	A	T	C	A	A	A	A	T
ALTA TENSION	C	T	C + AE (con vigilancia de un jefe de trabajo)	C (a distancia)	C o C auxiliado por A	A	C	A o T vigilado por A
T - CUALQUIER TRABAJADOR A - AUTORIZADO C - CUALIFICADO C + AE - CUALIFICADO Y AUTORIZADO POR ESCRITO					1.- Los trabajos con riesgos eléctricos en AT no podrán ser realizados por trabajadores de una Empresa de Trabajo Temporal (RD 616/1999). 2.- La realización de las distintas actividades contempladas se harán según lo establecido en las disposiciones del presente Real Decreto.			

Obrako buruaren lanpostua betetzen duen pertsonak kontratistaren ordezkari-lanak egin ahal izango ditu.

Programatzailea/integratzailea

- Informatikako, Elektronikako, Automatizazioko edo jakintza baliokideren bateko graduko

D.- KONTRATUAREN EPEA

prestakuntza teknikoa. Obraren ezaugarriekin eta balioarekin bateragarria den esperientzia izan behar du. Emandako softwarean esperientzia eta ezagutzak dituela egiaztatu behar du. Lizitazioan zehaztutako softwarean azken bost urteetan hiru urtetik gorako esperientzia egiaztatu behar du, bai eta egin beharrekoaren izaera bereko lanetan programatzaile gisa egindako lanen erreferentziak aurkeztu ere. «System Plattform», «Intouch» eta «Historian» azterketak gainditu izanaren ziurtagiria duen teknikaria izan behar du (Wonderware ziurtagiria).

Gainontzeko langileak

- Giza baliabide espezializatuak, kopuru eta kualifikazio nahikoarekin, kontratua kontratuan jasotako baldintzetan beteko dela bermatzeko:

Lizitatzailerak obran erabiliko dituen giza baliabideen organigrama xehatua jaso behar du aurkeztutako eskaintzan.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai ☐ Ez

Eskatu beharreko taldea, azpitaldea eta kategoria:

1. taldea, 6. azpitaldea, 4. kategoria.

ETA

1. taldea, 8. azpitaldea, 4. kategoria.

ENPRESA-GAIKUNTZA

Lan elektrikoa egin behar duen enpresak behe-tentsioko instalatzaile ziurtagiria eduki behar du, datuak ikuskatzeko, kontrolatzeko eta eskuratzeko sistemen espezialista kategoriakoa.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**1. dokumentua.**

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailleek proiektua gauzatzeari buruzko **memoria teknikoa eta metodologia** aurkeztu beharko dute. Memoria horretan, jarduera bakoitzaren irismena, metodologia, lan-prozedura, oinarrizko edukia, antolaketa eta plangintza zehatza (kontrol-fase eta -mugarriekin) proposatuko dituzte.

Gehieneko orri kopuru (alde batetik) onargarria 50 izango da, ezaugarri hauekin:

- DIN-A4 tamaina.
- Letra mota eta letraren gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta azpiko marjina: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjina: 2 cm.

Gehieneko orri kopurua zenbatzeko, aurkibidea 50 orri horien barruan kontabilizatuko da. Ez dira zenbatuko azala eta kontrazala.

2. dokumentua.

Eskainitako **tresneria eta materialak** ezaugarri nagusiekin eta merkataritza-erreferentzia osoekin lotzea. Aukera bat baino gehiago ematea, deskribapen generikoak egitea eta «antzekoa» edo halako esamoldeak erabiltzea baliogabetzat joko da. Eskainitako materialak lotesleak izango dira, eta ezin izango dira ordeztu eskaintza adjudikatu ostean, BBUPen Zuzendaritza Fakultatiboak idatzizko baimena eman ezean.

Merkataritza-katalogoak aurkeztu nahi dituzten enpresek eranskin independenteetan jaso beharko dituzte, eta eranskin horietan ezingo da sartu beste inolako dokumentazio ebaluagarririk.

3. dokumentua.

Honako plano hauek aurkeztu beharko dira:

- Ekipoek **motorren kontrol-zentroetan** izan beharreko barne-antolamendua.
- Ekipoek **PLC armairuetan** izan beharreko barne-antolamendua. Kargen zerrenda ematen da, armairuetako barne-antolamendua definitu ahal izateko.
- Planteatutako **komunikazio**-eskema.

4. dokumentua.

Gantt diagrama bat jaso beharko dute, egindako plangintza islatzeko, baliabideen esleipena, bide kritikoa eta funtsezko zereginak adierazita.

Gantt diagramari testu-dokumentu bat erantsiko zaio, obra **gauzatzeko kronologiaren** justifikazioa azaltzeko.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**5. dokumentua**

Lizitatzailerak bakoitzak berariaz adierazi beharko du zer neurri hartuko dituen obra gauzatzean, obraren eragina minimizatzeko. Hori guztia kostu gehigarriak gabe. Adibidez: obrako behin-behineko instalazioak, ekipoak une oro zerbitzuan edukitzeko, etab. Nolanahi ere, zehaztu beharra dago, proposamen orokor eta behar bezala aztertu gabeak eman gabe. Aurreikusten diren ekipo eta instalazioak, ezaugarriak eta jatorria zehaztuta. Enpresa hornitzaileen konpromiso-gutuna beharko da.

6. dokumentua.

Obrako **langileen organigrama**, figura adierazgarri bakoitzaren prestakuntza eta esperientzia barne. Horietako bakoitzak egindako izaera bereko lanen erreferentziak aurkeztu beharko dira, azken bezereen froga-gutunekin batera (azken 5 urteetakoak); ikasketa-tituluaren fotokopia. Lizitatzailerak arrisku elektrikoa gaitzea, 614/2001 Errege Dekretuaren arabera. Laneko segurtasunari buruzko oinarritzko ikastaroa egiaztatzea.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.

Lizitatzailerak prezio unitarioen taula osatzen duten puntu guzti-guztiak beteko dituzte (1. prezio-aula eta 2. prezio-aula), eta zenbaki berak edukiko dituzte. Prezio horietako bakoitza zatiezina da.

- b) Kontratuaren aurrekontua

Prezio bakoitzak neurketa bat du esleituta, eta lizitatzailerak ezin izango dute aldatu.

Prezio unitarioak, neurketak edo aurrekontua egiteko, Presto programan egindako aurrekontuaren kopia bat eranstean da, bai eta beste Excel orri bat ere. **Inolaz ere ez dute kontratu-izaerarik**, bakar-bakarrik kontratistak aurrekontua errazago egiteko aukera izan dezan entregatzen dira. (Ikus 4. dokumentua. Neurketak eta proiektuaren aurrekontua).

Kontratu-izaera duten prezioak administrazio-baldintzen agirian definituta daude.

Segurtasun- eta osasun-azterketarako partida bat sartu da, eta ezin izango da txikiagoa izan.

Aldaera bakoitza gutun-azal independente batean entregatuko da:

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa



I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:

Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak (titularrak):

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria (titularra):

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 75 PUNTU

Irizpide honetan 75 puntu emango dira gehienez.

Horretarako, ondoren azaldutako formula matematikoak erabiliko dira, eta haien emaitza K_1 koefizienteaz biderkatuko da, zeina honako hau den:

$$K_1 = 75 / 50$$

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (B_i) proportzioan baloratuko dira honako balio hauek esleituko dituzten formula matematikoen bidez:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBB) / 2	48 puntu
BBB	47 puntu
0,8 x BBB	46 puntu
0,6 x BBB	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Puntu hauetako balioak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

Non:

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona.
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta. Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Formula hauen bidez lortuta Pi puntuazioaren emaitza guztiak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 25 PUNTOS****1.- Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia - 15 puntu**

Alderdi hauek baloratuko dira:

- Kontratuaren funtsezko alderdiak identifikatzea, zehaztasun-maila eta eskaintzan kontraesanik edo anbiguotasunik ez egotea. Preskripzioen agirietan eta kontratuko gainerako dokumentuetan akatsak, kontraesanak edo hobetzeko moduko alderdiak identifikatzea. **12 puntu.**
- Lanak programatzea, baliabideak esleitura. **3 puntu.**

2.- Obrarako jarritako bitartekoak - 10 puntu

- Instalazioaren funtzionamendua ez oztopatzeke bitartekoak eta baliabideak **3 puntu.**
- Lanen antolamendua eta ekipoak **7 puntu.**

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresa batek plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena izatea; berdinketa gertatuz gero, plantillan desgaitasuna duten langile finko gehien dituen lehenetsiko da, edo plantillan inklusio-neurrien bidezko langile gehien dituen.
- b) Enpresa batek plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena izatea.
- c) Enpresa batek plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena izatea.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpide horiek aplikatuta ez bada lortu enpresen arteko berdinketa haustea.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikienerako hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **12,5 puntu** gutxienez ez lortzea.

ESKAINZATIK KANPO UZTEA ERAGITEN DUTEN EZ-BETETZE TEKNIKOAK

- PTPAn edo administrazio-baldintzetan eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duen eskaintza bat aurkeztea.
- Eskaintako ekipoek eskatutako gutxieneko zehaztapan teknikoak ez betetzea.
- Eskaintako ekipoen marka eta eredu zehatzik ez zehaztea, «edo antzekoa» esamoldea edo parekoak erabiliz.
- Programazio-lanak egingo dituen enpresak Wonderwareren «Archestra ziurtagiria» ez izatea SCADAn lan egiteko.
- Lan elektrikoa egin behar duen enpresak behe-tentsioko instalatzaile ziurtagiria ez edukitzea, datuak ikuskatzeko, kontrolatzeko eta eskuratzeko sistemak kategoriakoa.
- PLCak eta SCADA sistemak kontrolatzeko eta komunikatzeko programazio-lanak azpikontratatzeko.
- Eskatutako dokumentazio teknikoa ez aurkeztea edo behar bezala ez egiaztatzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

Mugarri partzialak

Honako zigor hauek ezartzen dira mugarri partzialak ez betetzeagatik. Hilabeteak zuinketa-akta sinatzen denetik hasiko dira zenbatzen.

Mugarri bakoitzeko atzerapenaren lehen astea graziazkoa da. Graziazko aste horretatik aurrera, atzeratutako aste bakoitzeko 1.000,00 euroko zigorra aplikatuko da mugarri bakoitzeko; gehienez kontratuaren % 10, baina BBUPek kontratua deuseztatze ahalmena izango du % 5etik aurrera.

Epeak betetzeko aurkeztu diren baina osatu gabe dauden edo eskasak diren lanak baztertu egingo dira, eta aurkeztu gabeko lan gisa zenbatuko dira. Jabetzak (BBUP) erabakiko du, bere irizpidearen arabera.

M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

Deitutako bileretara ez joateak 500 euroko zigorra izan dezake.

Lan eskasengatiko zigorra. 1.000 euroko zigorra ezarriko da lan eskasa egiteagatik eginiko ohartarazpen bakoitzeko

Laneko istripuengatiko zigorrak:

- Obra-zuzendaritzari gertakaria jazo eta lehen 24 orduetan jakinarazten EZ zaion bakoitzean (*in itinere* istripuak barne), edozein gorabehera edo istripu honako zigor hauekin zigortuko da:
 - 500 euro gorabeheretan, lehen aldian. 1.000 euro bigarrenetan eta horrela hurrenez hurren (500 x gorabehera kopurua).
 - 1.000 euro istripuetan, lehen aldian. 2.000 euro bigarrenetan eta horrela hurrenez hurren (1.000 x istripu kopurua).
- Istripu arin bakoitzeko, *in itinere* istripuak izan ezik, 500 euroko zigorra ezarriko da.
- Istripu larri (edo larriago) bakoitzeko, *in itinere* istripuak izan ezik, 1.000 euroko zigorra ezarriko da. Eta, gainera, 150 euro ukitutako langile bakoitzaren baja-eguneko. Langileak obrakoak, aholkulariarenak (azpikontratatuak barne) eta BBUPeko edo instalazioan lan egiten duten beste enpresa batzuetako langileak izango dira.

Zigorrak jabetzak obrarako baimendu gabeko energia- edo ur-iturriak erabiltzeagatik. Aldi bakoitzean 500 euroko zigorra ezarriko da.

Obrako ekipo edo materialen garraiolariari deskarga egiteko tokiaren berri ez emateagatik, edo hartara arteko ibilbidearen berri ez emateagatik edo instalazioaren barruko ibilbidearen berri ez emateagatik. Aldi bakoitzean 250 euroko zigorra ezarriko da.

Euria egiten duenean hondatzeko moduko ekipoak deskargatzeagatik. Aldi bakoitzean 1.000 euroko zigorra ezarriko da.

Instalazioko zirkulazio-bideak jabetzaren baimenik gabe okupatzeagatik (baita kamioiak deskargatzeko ere). Aldi bakoitzean 500 euroko zigorra ezarriko da.

Zigor horiek Jabetzaren (BBUP) irizpidearen arabera aplikatuko dira beti.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztagiria.

Administrazio-klausula partikularren agiriaren gehigarria. (VIII. eranskina).

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatutako kontratuei dagokienez, aurreikusi gabeko aldaketak izan litezke zehaztutako betekizunak aldatu beharra dagoelako arau-aldaketek planari buruzko ezaugarri/baldintza desberdinak ekartzearen ondorioz.



Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatzeko kausa izango da agintari arduradunak agintzea DNSHaren eta etiketa berde eta digitalaren arloan neurri zuzentzaileak hartu beharra dagoela.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai.

PLCaren eta SCADaren programazioa ezin izango da azpikontratatu, kontratuaren helburu nagusiarekin (Sollanoko EUTaren sistema elektrikoa eta kontrol-sistema eraberritzea) lotutako zeregin kritikoak baitira. Zeregin kritikoak dira; izan ere, sistema birmoldatzen ari den bitartean ezin da ekoizpena inoiz gelditu. Horrenbestez, kontratistaren mende zuzenean egon ezean, baliteke gorabeherak sortzea, zuzeneko elkarrizketa behar baita PLCaren programazioaren eta SCADaren programazioaren artean. Horregatik, kontrol-sistema berria programatzea lan funtsezkoa eta kritikoa da obrako lanen garapenean, eta zuzeneko eragina du instalazioaren funtzionamenduan. Horregatik, kontratista nagusiak zuzenean egin behar ditu lan horiek.

Klausula hauen barruan azpikontratatu beharreko zerbitzuak edo lanak beti izango dira BBUPen alde zuzeneko baimenarekin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak baimendutakoaren barruan. Lizitatzailerik ez duen lan azpikontratatu dituzten adierazi beharko dute beren eskaintza teknikoan, eta zerbitzuak ematea adosten duten enpresekin adostutako kontratuzko konpromisoak helaraziko dituzte.

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI ☒ EZ

R.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

OSAGAIA:

Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana lau helburu handitan dago eratuta (Espainia berdea; Espainia digitala; Espainia, genero-arrakalarik gabe; Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politikatan:

- I. Hiri- eta landa-agenda eta despopulazioaren kontrako borroka.
- II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak.
- III. Energia-trantsizio bidezko eta inklusiboa.
- IV. XXI. menderako administrazioa.
- V. Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia herrialde ekintzaile gisa sustatzea.
- VI. Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna. Estatuko Osasun Sistemaren gaitasunak indartzea.
- VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena.
- VIII. Zaintza ekonomia berria eta enplegu-politikak.
- IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea.
- X. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta jasangarria xede.

Palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. «**Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea**» 5. osagaiaren barruan «**Trantsizio digitala uraren sektorean**» 3. inbertsioa sartzen da, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia

Planean jaso bezala. Aipatu osagaiaren markoan kokatzen da lizitazio honen edukia, eta kontratistak/azpikontratatistak adierazi du horren berri baduela, eta konpromisoa hartzen du bertan jasotakoa bere jarduera-eremuaren barruan betetzeko.

Hartarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Europa zein Espainia mailako suspertze-planen araudiari jarraikiz. Zehazki, oinarri horiekin, esparru hauetan sar litezkeen jarduketak egingo dira:

C5.I3a azpineurria, ur-baliabideei buruzko ezagutza eta horien erabilera hobetzeko buruzkoa.

Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren ziklo urbanoaren kudeaketa integrala da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren ziklo urbanoaren kudeaketaren efizientzia orokorra hobetzeko zeharkako neurria da, eta osatu eta lagundu egiten du, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana nola diseinatuta dagoen aintzat hartuta, honako CID helburu hau betetzen: «Erremintak martxan jartzea ur-baliabideen ezagutza eta erabilera hobetzeko, eta prezipitazioak eta beste datu meteorologiko batzuk erregistratzeko» (3. inbertsioa: CID #79).

91/271/EEE Zuzentaraua betetzea bermatzeko eta energia-efizientiaren irizpideak betetzeko, edo ura banatzeko sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko.

Inbertsioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 5. osagaiaren 3. inbertsioan (C5.I3) jasota daudenez, gingo diren jarduketak bat etorriko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren (EB) «Klimaren aldeko ekintzarako jarraipen-metodologia» VI. eranskinaren esku hartzeko honako arloarekin: 3. inbertsioa: 040 – «Ura kudeatzea eta ur-baliabideak kontserbatzea (barne hartuta ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketara egokitzeko neurri espezifikoak, berrerabilera eta ihesak murriztea)».

Entitate deitzaileak egiazta dezan deialdiarekin lotutako mugarriak (lorpen kualitatiboak) eta helburuak (lorpen kuantitatiboak) bete direla, kontratistak/azpikontratatistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditu egoki iritzitako jarraipen-txostenak, zeinak honako honetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko).

Bete behar du, era berean, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzei buruzkoa.

Ez-betetzetzat hartuko da eskatutako jarraipen-txostenak ez aurkeztea, bai eta txostenok osatu gabe, epez kanpo eta agiriaren zehaztapenak aintzat hartu gabe aurkeztea.

JARDUKETA:	ESEPE 2 URDATA BIZKAIA. B1. A10
Kontratazio- organoaren iruzurraren aurkako neurri-plana kontsultatzeko esteka	https://www.consorciodeaguas.eus/web/Transparencia/PDF/INSTITUCIONAL/CAS/Plan-integridad-medidas-antifraude.pdf

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Programazio-lanak egingo dituen enpresak Wonderware-ren «ArchestrA integratzaile ziurtatu profesionala» ziurtagiria izan beharko du.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak erabakitzeko gaitasuna duen ordezkari bat atxiki beharko dio obrari. Ordezkari horrek kontratuaren arduradunarekin berba egiteko funtzioa izango du; obrako buruak hartu ahal izango du bere gain zeregin hori.

- BBUPeko Prebentzio Departamentuaren eskakizunak betetzea.
- BBUPen ingurumen-eskakizunak betetzea.
- Segurtasun eta Osasun Azterlanaren eskakizunak betetzea.
- Lanean une oro prebentzio-baliabide bat izatea.
- PTPAren 8. atalean eskatzen diren giza baliabideak betetzea.
- Lanak zerbitzuaren beharren arabera izango dira. Horregatik, edozein unetan eten edo atzeratu beharko dira, BBUPek hala eskatuz gero (modu arbitrarioan). Ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake.
- Zerbitzuak lehentasuna du obrako lanen aurretik, eta, ondorioz, obraren jarduera harekin bateragarriak diren egun eta ordutegietara eramango da. Hori dela eta, honako hauek aurreikusi behar dira: gauez eta asteburuetan lan egitea, lanak egin bitartean eten luzeak egotea, eta baldintza jakin batzuetan lanak aldi baterako eta aurreikusi gabe etetea; hori guztia BBUPerako kostu gehigarriak gabe. Adjudikaziodunak ez du aparteko konpentsazio ekonomikorik izango horregatik, eta, ondorioz, baldintza horiek obra-prezioetan baloratu beharko ditu. Betekizun



BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

hori ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar lezake.

- Adjudikaziodunaren akats edo zabarkeria baten ondoriozko matxura larri batek eta istripu larri batek kontratua deuseztatzea ekar lezake.
- Atzerapenagatik % 5eko edo gehiagoko zigorrak aplikatuz gero, horrek kontratua deuseztatzea ekar lezake.
- Kontratistak deitzen duten bilera guztietan parte hartu beharko du. Obraren jarraipen-bileretan, kontratistak idatzi beharko du bileraren akta, eta BBUPera bidali beharko du, hura onartzeko, eta, behar izanez gero, iruzkinak egiteko.